



desclée



desclée



ETSAIAREN HEGAZKINAK NEIL ANDERTOLEN ATZEAN azaldu ziren, hondarrezko eremu bakarti baten gainean planeatzen. Neilek batera eta bestera begiratu zuen bere hegazkinaren kontrol-gelako leihotik. Bere eskadroiko bi hegazkin zituen alboetan, paraleloan hegan egiten.

–Gu besterik ez gara geratzen? –galdetu zien Neilek.

–Bai –esan zion eskuineko pilotuak–. Besteak txikitu egin dituzte. Hirurok baino ez gaude.

Neilek tinkoago heldu zien hegazkinaren kontrolei, konfiantza handiarekin. Lurreko harri-koskorrak harkaitz bihurtu ziren, eta harkaitzen artean labar erraldoiak zeuden. Neilen eskadroiko pilotu batek Neil aurreratu zuen, eta etsaien hegazkinen kontra amiltzen hasi zen.

–Kontuz, motel, arriskutsua... –ohartarazi nahi izan zion Neilek, baina bere kideak harkaitz-eremu baten kontra talka egin zuen. Suzko bolak sortu zuen distira laranja eta gorriak Neilen hegazkina inguratu eta altzairuzko azalera berotu zuen.

Etsaiaren hegazkinak ziztu bizian abiatu ziren aurre-rantz. Ezustean, arroila handi baten irekidurarekin egin zuten topo parez pare.

–TiroketaSam –esan zion Neilek geratzen zitzaion aliatu bakarrari entzungailuen mikrofonotik–, arroilan ez dago biontzako lekurik.

Beste pilotuak, TiroketaSam-ek, Neili adostasun-keinu bat egin zion, Neilen atzetik kendu zen, eta ozta-ozta lortu zuen arroilaren bazter hautseztatutik aldentzea.

–Ni arduratuko naiz lehen jarraitu didan hegazkinaz, bestea zure esku, konforme? Ala zure lana ere neuk egin behar dut? –esan zion Neili txantxetan entzungailuko ahotsak.

–Aizu, ez dezagun ahaztu zenbat aldiz atera dizkizudan babak eltzetik –erantzun zion Neilek irribarre eginez. Bi pilotuek hilabeteak zeramatzaten ia egunero elkarrekin hegan egiten, eta elkar zirikatzen bazuten ere, lagun minak ziren.

Neil azpian zeukan arroilarantz zuzendu zen, etsaiarengana hurbiltzeko. Mugimendu harekin, harri batzuk bota zituen azpiko ibaitxora. Tiro egiteko sistema automa-

tikoarekin itua finkatzen saiatu zen, baina etsaiaren ikono keinukaria gora eta behera mugitu zen Neilen radarraren pantailan. Neilek ziztu bizian zeharkatu zuen harearriko arroila, hormetatik hurbilegi gidatuz, baina ez zuen gerturatzeari lortzen. Etsaia are azkarrago mugitu zen eta aldentzen hasi zen.

Antzinako erara egiteko ordua da, pentsatu zuen Neilek.

Orduan, itu-sistema automatikoa desaktibatu zuen eta eskuz apuntatzen saiatu zen. Begiak itxi zituen, apuntatu egin zuen, eta etsaia mendean hartzeko baina minik eman gabe egiteko diseinatutako misil bat jaurti zuen. Oraingoan, hegazkinaren eskuineko hegoa jotzea lortu zuen.

Nahi nuen lekuan daukat.

—Neil —esan zion ahots batek atzetik.

Neilek ez zion jaramonik egin. Begiak pixka bat itxi zituen, hauts-hodeian zehar ikusten ahaleginduz, irabaztear zegoelakoan.

—Neil, entzuten didazu?

Neilek eskuak aginteetan zeuzkan. Metro gutxi batzuk baino ez zitzaizkion falta misioa burutzeko eta bere herrialdea seguru egotea lortzeko. Misiotik etxera itzultzean harrera beroa egingo zion jendetzaren oihuak ere entzun zitzakeela iruditu zitzaion.

—Neil Andertol! —bota zuen orroka ahotsak. Neil bere hegazkinaren burrunban eta misilen itu-sistemaren soinu

erritmikoan kontzentratu zen. Etsaiaren hegazkinaren atze-atzean jarri zen eta apuntatu egin zuen.

—Bat, bi...

Baina, bat-batean, dena beltz geratu zen.

Neilek entzungailua bere ile nahasitik kendu eta lurrera bota zuen.

—Ama! Puntu horretaraino iristea lortu dudan lehenengo aldia zen! Gure herrialdea eta aldameneko herrialdearen zatitxo bat salbatzear nintzen! —oihukatu zuen, bat-bateko itzalaldia eragin zuen emakumeari haserre bizian begiratu—. Nik ez zaitut gogaitzen telebistan aitopen-saio horietako bat ikusten ari zarenean eta tipo xebreren bat zerbait garrantzitsua aitortzear denean!

Neilen amak telebistaren kablea lurrean utzi zuen eta mutikoaren albotik igaro zen. Leihoaren pertsiana ireki zuen, eta irribarre egin zuen eguzkiaren izpiak bere semearen logelara sartu zirenean.

—Behintzat “tipo xebre” horiek ez dute ostiral arratsalde eder bat gela ilun batean alferrik galtzen —erantzun zion. Neilek aurpegia eskuekin babestu zuen, baina eguzkiaren distira bere hatzen artetik igarotzen zen—. Laztana, hemen animalia basatiak bizi direla ematen du —esan zion amak, lurrean botata zeuden eskuoihal, galtzerdi eta galtzontzilo zikinak seinalatuz. Arrazoi zuen. Neilen higienehitura zalantzarriak ikusita eta argi naturala gorroto zuela kontuan hartuta, bere gelak piztia gautar baten gorde-

lekua ematen zuen. Andertol andrea kanta-marmarrean hasi zen, arropa zikina jasotzen zuela.

Neilek telebista entxufatu zuen eta *Kameleoia* bideojokoko partidari lortu berri zuen puntuazioa ikusi zuen. Hura zen bere bideojokorik gogokoena. Zurrumurruek zioten armadaren benetakoa simulagailu bat zela eta baimenik gabe iritsi zela merkatura. *Gamer* gazteak garrasi bati eutsi behar izan zion pantailan zenbaki keinukari hura ikusi zuenean. Bat-batean jokoz kanpo zuten arren, partida hartakoa zen ordura arte lortu zuen puntuaziorik altuena.

—Tira, tira, mesedez... —murduskatu zuen Neilek, jokoaren menu nagusiari begira erotuta bezala botoiak sakatzen ari zela.

Neilek asteak zeramatzan bigarren postuan, eta egiten zuena egiten zuela ere, bazirudien ez zuela lortzen nazioarteko txapeldunari irabaztea.

—Eeeeeez! —kexatu zen orrialdea kargatu zenean. Han zegoen, ZentiNeila, bere etsai nagusiaren azpian: B4rrelR0ll. Neilen amak ez zuen zirkinik ere egin bere semeak frustratuta agintea lurrera bota zuenean.

Neilek ilea alde baterantz baztertu zuen eskuaz eta telebista-pantaila zorrotz aztertu zuen, aurreko partidetakoa puntuazioak irakurtzen zituela. Azkenaldiko zurrumurruek ziotenez, jokalaria bat puntuazio jakin batera iristen zenean, hegazkina ikusezin egiteko aukera desblokeatzen zen. Neilek ez zuen guttiz sinesten, baina bezperan,

B4rrelR0ll foro guztietan aritu zen harropuzkerian eta lortu zuela esaten. Neilek frustrazio-keinu bat egin zuen zein hurbil geratu zen pentsatzean. Artean TiroketaSamen ahots ahula entzuten zuen entzungailuan, baina Neilek ez zuen solaserako gogo handirik.

Hasperen eginez, Neil bideojokoaren menutik atera eta bere web orririk gogokoenera sartu zen, bideojokoen foro batera. Internet Piraseas umeek umeentzat sortutako web orri bat zen, edo hobe esanda, ume batek sortu zuen, Abiarazpen Robiski izeneko hamahiru urteko hacker jeinu batek. Inork ere ez zekien Abiarazpen non zegoen, baina web orria etengabe eguneratzen zuen. Neilek era guztietako teoriak entzun zituen: itsasontzi batean bizi zela nazioarteko itsas eremuan, Alaskan zegoela yurta baten moduko etxola batean, Etxe Zuriaren azpian ezkutatuta bizi zela bideojo-koetan jokatzeko gordeleku batean...

Abiarazpenen web orria misterioz inguratuta zegoen, eta oso-oso selektiboa zen. Umerik trebeenak bakarrik lehiatuko zirela ziurtatzeko, Abiarazpenek hautaketa-prozesu gogorra zuen kide izan nahi zutenentzat: GIF fitxategi bat sortu behar zuten, nahi zuten bideojokoan nazioarteko hogeit puntuziorik altuenak lortu behar zituzten, eta gainera, hamaika orduz jarraian jokatu behar zuten. Neil urte batzuk lehenago bihurtu zen web orriaren kide, eta mundiala iruditzen zitzaion. Jokalaririk trebeenak eta lehiakorrenak webgune haren kide ziren, guzti-guztiak, eta hamaika

bideojoko zituen, besteak beste *Kameleoia* (ezin zen beste inon aurkitu). Batzuetan, Neilek bere buruari galdetzen zion ea Abiarazpenek berak ere jokutzen ote zuen, baina jokutzen bazuen, ezkutuan egiten zuen.

—Itzali traste hori behingoz —esan zion amak, jertse marroi bat jasotzen zuela—. Plan bikaina dut zuretzat gaur gauerako.

Neilek begiak zuri jarri zituen. Neilen iritzian, “plan bikain bat” bideojokoetan aritzea zen, edo bideojokoei buruzko pelikula bat ikustea, edo bi gauza horiek egitea, beti ere pizza zati eder bat tartean izanda, jakina. Neilen amaren ustez, aldiz, “plan bikain bat” museo bat bisitatzea, antzerkera joatea edo aire zabalean egotea esan nahi zuen zerbait egitea zen.

—Baina ostirala da! Zubi baten aurreko ostirala! Beraz, ostiral bikoitza dela esan daiteke! Noiz izango dut nire logelari hirurogei orduz jarraian egoteko aukera berriro? —Neil panazko aulki zahar batean eserita zegoen, hankak gurutzatuta zituen, oinetako pare zahar bat zeraman soinean, baita hainbat litxarrerriaren apurrez zikindutako bakero gastatu batzuk eta amak erosi berri zion eta oso handi geratzen zitzaion kamiseta beltz bat ere. Neil argal-argala eta mengela zen.

—Hogeita piko urte betetzen dituzunean —erantzun zion amak hamahiru urteko semeari, jarraian logelako zer txokotako anabasa jasotzen jarraitu erabakitzen ari zela—.

Gaur Colorado Springsera joango gara Hildako Soldaduen Asteburuko karate txapelketan Janey ikustera.

Neilen zortzi urteko ahizpak, Janeyk, irribarre xarmagarria zuen, eta txintxo-txintxo balitz bezala portatzen zen, baina aldi berean, beldurra ematen zuen arte martzialetan zein trebea zen ikusteak. Astebururo ekartzen zuen domina berriren bat txapelketaren batetik, eta logelako hormak sariz josita zeuzkan jada.

Are gehiago, bere logelako hormetan ez zitzaionez geratzen sari gehiago jartzeko tokirik, Janey azkenaldian bere garaikurrik handienak tximiniako apalaren gainean jartzen hasi zen. Apal haren ertz batean Neilen argazki bat zegoen, eta beste muturrean Janeyren beste argazki bat. Janeyk pixkanaka bere apal-zatia bere garaipenen sari distiratsuez bete zuenez, Neil bere apal erdia apaintzeko gauzen bila aritu zen. Momentuz, dentistak eman zion “Hortz Garbien Urrezko Saria” eta Laser Tag-ean lortu berri zuen garaipenaren puntuazioa marko batean jarrita besterik ez zuen aurkitu.

Baina Janeyren entrenamenduaren alderik txarrena zen bazirudiela Neil entrenamendu-zaku biziduntzat jotzen zuela. Neil despistatzen zen bakoitzean, karate-kolpeak eta ostiko birakariak jotzen zizkion, bai denda batean erosketak egiten ari zirenean, bai jatetxe batean zeudenean, bai azokara barazkiak eroatera zihoazenean. Ez zegoen leku segururik. Neil etengabe erne dabilen ninja bat bezala ibiltzen zen

supermerkatuan, janari izoztuen sekzioan ezkutuko eraso bati aurre egiteko prest.

—Ezin naiz etxean geratu eta kito? —erregutu zion amari—. Eta aitak zer egingo du? Ez da joango, ezta?

—Ondo baino hobeto dakizu beste hamar egunez izango dela kanpoan lan-kontuengatik —erantzun zion—. Eta ezin zara etxean bakarrik geratu, baina horretara nindoan, laztana. Badakit ez duzula beste txapelketa batera behartuta joateko gogo izpirik...

—Orduan, Tylerren etxera joan naiteke? —benetako munduari zegokionez, Tyler zen Neilen lagunik minena. Neilen familia Coloradora bizitzera joan zenean, Neilen lehenengo eskola-egunean ezagutu zuten elkar. Elgorriaren txertoa jasotzeko zain zeudela, hitz egiten hasi ziren, eta bie bideojokoak gustatzen zitzaizkielako bihurtu ziren lagunak, baita txantxa bera bururatu zitzaielako ere (mahuka batean ketxup-poltsatxo bat zabalik ezkutatzea eskolako erizaina ikaratzeko). Egun hartan, lagun min bana irabazi zuten, baita erizaindegira itzultzeko debeku galanta ere.

—Ez, Tyler familia osoarekin joan da beren amonaren etxera asteburua pasatzera. Baina Scott andrearekin hitz egin dut, eta esan dit Tommyk asteburu honetarako pijama-festa bat antolatu duela karatean dabilzan anaia-arrebak dituzten eta txapelketara joan nahi ez duten mutil guztientzat. Joango zarela esan diot —Andertol andreak izara zikinez osatutako mendi bati begiratu zion—. Bai dibertigarria, ezta?

—Badakizu zer? Manitoban biziko banintz, emantzipatzeko gutxieneko adin legala izango nuke jada, eta beraz, ez naiz joango amatxok antolatu didan pijama-festa batera, ezta pentsatu ere —esan zion Neilek defentsiban. Bere arre-baren jipoi galanta jasatea baino okerragoa zen gauza bakarra Tommy Scottekin egotea zen.

Neil eskola berrira joaten hasi zen lehenengo astean, kickballean jokatzeko ari zirela, Tommyk baloiaz kolpe ikaragarria jo zion Neili, eta Neil min-keinuak egiten eta arnastuka aritu zen patioan jende guztiaren aurrean. Gainera, patua batzuetan errukigabea izaten denez, egun hartan, Toll andereñoaren zientzia-eskolan Neanderthalei buruz mintzatu ziren, hau da, marruka eta keinu eroak eginez komunikatzen ziren gizakiaren arbasoei buruz. Alegia, Neilek patioan ikasleei, irakasleei eta ikusi zuten guztiei erakutsi zizkienak bezalako keinuekin hitz egiten zuten. Harrezkero, Tommyri esker, nola ez, Neil Andertolen izena desagertu egin zen eta “Neandertol” jaio zen.

—Baduzu ezagunik Manitoban ala? —galdetu zion amak lasai askoan, armairua irekitzen eta arropa zikinaren saskia betetzen zuela.

—Interneten irakurri dut, baina hori ez da kontua!
—Ia pentsatu gabe, Neilek eztarria garbitu zuen eta eskuak miazkatu zituen, amak pentsa zezan izerditan blai zeuzkala—. Egia esan, hobe nuke asteburu honetan etxean geratu. Baina lasai, bakarrik molda naiteke.

—A, bai? —erantzun zion amak.

—Bai —esan zion Neilek—. Pixka bat ondoezik nago.

Gaixo-plantak egiten eskarmentu luzea zuenez, Neilek ondo baino hobeto zekien zer gertatuko zen jarraian. Hasierako seinaleekin hasiko zen, baina amak ez zion erraz sinetsiko; nolana ere, azkenean, froga garbi batzuei esker, ama konbentzitzea lortuko zuen. Neil txikiagoa zenean, amak zuzenean sinesten zion gaixorik zegoela esaten zionean, baina ordurako, froga eztabidaezinak behar izaten zituen.

Neilen begiek logela arakatu zuen, kopetan jartzeko gauza beroren baten bila. Ordura arte ikusi zuenaren arabera, sukarra zeukan itxurak egiteko baliabiderik onena hirurogei watt-eko bonbillak ziren. Eta txarrena amaren ile-kizkurgailua zen. Metal gori hura erabiliz, erredura-marka bat eta medikuarenean hiru orduz itxaron behar izatea besterik ez zuen lortu.

—Beno, gaixorik bazaude nahitaez etorri beharko duzu gurekin —esan zion amak armairutik—. Asteburuetakoa karate-txapelketa horietan azken belaunaldiko erizaindegiak izaten dituzte. Ziur atsegin handiz sendatuko zaituztela.

Une hartan, Janeyk “kia!” oihukatu zuen beheko solairuan.

—Badirudi Janeyk zurezko taulak hausten ikasi berri duela —esan zuen Neilen amak. Jarraian, txerri-korta bat zirudien armairutik kontu handiz irten zen eta logelako atea zabaldu zuen.

Neilek bere bi aukerei buruz hausnartu zuen. Zein zen okerragoa, Tommy Scott ala bere arreba odolzalea? Janeyk berriro ere oihu egin zuen, pinuzko taula bat eskuaz haulten zuela, eta Neil geldi-geldi geratu zen. Taula hura bere omoplatoa zela irudikatze hutsak min ematen zion.

—Espero dut soinu hori ez izatea mozteko erosi berri dudan sukaldeko taula berria! —oihukatu zuen Neilen amak beheko solairurantz. Andertol andrea Neilen atearen parean geldi geratu zen, besoak arropaz gainezka zeuzkala—. Hobe duzu astebururako motxila prestatu —esan zion Neili—. Ziur ezin hobeto pasatuko duzula.